

Arrasatek euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina abiaraziko du

Bihar hasi eta uztailaren 24a arte iraungo du. Liburutegira argitalpena itzulitakoan, herriko hiru dendetan %25eko deskontua izango da liburu bat erostean

ANABEL DOMINGUEZ. ARRASATE.

Irakurtzeko gogoia kutsatu. Horixe da Arrasateko AED eta Txatxilipurdi elkarteek, udal liburutegiarekin batera, gerturatuko duten kanpainaren helburua. Horretarako, liburutegian hartu eta irakurritako euskarazko liburu bakoitzeko %25eko deskontua izango da herriko hiru dendetan.

Euskara elkarten federazioa den Topaguneak orain dela hiru urte martxan jarri zuen Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoarekin aurten 21 herri bat egingo dute, horien artean Arrasatek, eskualdean bakarrak. Ekimenaren nondik norakoak ezagutzera eman zituzten atzo Txatxilipurdiko ordezkari den Eneko Barberenak, AEDko Josu Errastik eta udal liburutegiko arduradunak, Mertxe Perez de Cirizak. Denek azpimarratu zutenez lehenengo aldia izanik, "ilusio handiz" eutsi diote erronkari.

Denbora honetan, Kultureta eta Santamaina auzoko udal zerbitzuetan adin guztietako edozein herritar eta kanpotarrek liburutegiko txartelarekin euskarazko liburu bat aukeratu eta irakurritakoan, "fitxa sinple bat bete beharko dute, bertan, lanak zein inpresio eman dien edo nori gomendatuko zioten bezalako galderei erantzun beharko diete", zehaztu zuen Errastik. Fitxa hori osatuz gero, deskontu txartela jasoko da eta honekin Elkar, Eroski eta Portaloiko kioskoan euskarazko liburua %25 merkeago erosi ahal izango da. (AED edo Txatxilipurdiko bazkideek, %50eko beherapena lortuko dute). ehun gomendio Anthony Brownen Kezkamuxelak , Yolanda Arrietaren Oinutsik jauregian , Arkaitz Canoren Itsasoa etxe barruan , Sam McBratneyen Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan , Joseba Sarrionandiaren Narrazioak , Anjel Lertxundiren Zoaz infernura, laztana, Unai Elorriagaren Sprako tranbia , Julen Gabiriaren Han Goitik itsasoa ikusten da eta, horrela, ehun izeneko gomendio zerrenda bat atera du Topaguneak; hauen artean hamarrek "Arrasaterekin zerikusia dute edo hemengo herritarren batek idatziak dira", adierazi zuen Barberenak. Gainera, ehun liburu horietaz gain, beste asko ere badaude eta berdin-berdin balio dute lehen urrats hori emateko; euskaraz irakurtzearena.

Perez de Cirizak atzoko agerraldian aipatu zuenez, beraiek eskuartean dituzten datuen arabera "euskaraz geroz eta gehiago irakurtzen da". Hala ere, euskaraz ekoizten diren produktuak "oso urriak" dira beste hizkuntza ba-tzuekin alderatuz. "Argitaratu diren guztiak erosi ditugun arren", liburutegian gordetzen dituzten fondoak laurdena besterik ez daude euskaraz idatzita.